

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 265. alea - 2021eko abuztua




**Juan Luis
Baroja Collet
*bertatik bertara***



**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

EUSKAL OKELA
DOPPEL DORADO DE CARABAN DEL PAGO VIECO
EURO LABEL



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

Calbeton



JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan**


Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**BURU - ZURI
Taberna**

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntzak
- Gauean tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

EUSKARAZ

ZABALDU 2021-2022
AUKERAK

DESCUBRE TODO LO
QUE TE OFRECE
EL EUSKARA

ONDO PASA UDA GARAI!

Matrikula zabalik

Ikastaroak

Aurrez aurrekoak: 2, 3 edo 4 egun asteen, mailaren arabera.

Autoikaskuntza Internet bidez.

Euskara ulertu eta euskaraz bizitzeko ikastaroak.

Mailak: A1, A2, B1, B2, C1, C2.

Azterketa prestatzeko ikastaroak: HABEren titulu ofizialak, Administrazioa, Osakidetza.

16 urtetik gorakoentzat

Matrikulaldia: Irailaren 1etik 24ra arte

Langabetu, ikasle eta gurasoek

MATRIKULA ERDIA

Ikastaro amaieran **BEKAK** denentzat (Baldintzak betez gero)

Informa zaitetz Udal Euskaltegian!

MATRIKULA ORDUTEGIA
10:00-12:30 / 17:00-19:30

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA
Deba: Ifar Kalea, 12 - 943 192 236



AURKIBIDEA

5

KOLABORAZIOAK

“Debako kale-izenak eta generoaren ikuspegia”, Jose Luis Albizuren eskutik



8

ALBISTEAK

Dagigun partaidetzarako gunea aurkeztu dute zumardiko karpan



10

ELKARRIZKETA

Juan Luis Baroja Collet *Bertatik Bertara* liburu bereziaz eta, oro har, bere ibilbidez



12

ELKARRIZKETA

Jorge Aguirre Davila elkarrizketatu dugu *Debarrak Munduan* atalean



14

IRUDI GALERIA

Aurtengo Kolorez Blai euskal udalekueetan ateratako argazkien bilduma



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83 / 632 043 322

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA

Zuhatzza
Euskara Elkartea

LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDAIA



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Saibunordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Erredakzioa: Izaro Aulestiarte, Nagore Dorronsoro eta Alex Turrillas

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzioa

Publizitatea: Joseba Escudero eta Alex Turrillas

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria

Lege gordailua: SS-246-2009

Inprimategia: Euskalinpri

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

ME ENDAÑETA
muebles altzariak



Sukalde eta etxe altzarien
erakusketa izugarria 3000m²

Itziariko gaina

T.: 943 19 91 00 - F.: 943 19 91 01

ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

endaneta@mueblesendaneta.com

www.mueblesendaneta.com

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzaileen@zuhatza.com.

Berriketan aldizkariaren hurrengo alea urrian

Esku artean daukazuen ale honekin agurtzen du **Berriketan** herri aldizkariak ikasturtea. Abuztuaren erdialdean oporrrak hartuko ditugu erredakzioan, baita Zuhatza Euskara Elkartean ere; hori dela eta, urtero bezala, irailean ez dela

Berriketan-ik kaleratuko gogorarazi nahi dizuegu. Hurrengo alea urrian plazaratuko dugu.

Nolanahi ere, irailetik aurrera izango dugu berriz ere elkarren berri, besteak beste, eta osasun-egoerak ahalbidetzen

badu behinik behin, hitzordua jarrita baitugu Euskal Jaian. Ordura arte, ondo izan eta, batez ere, gozatu, baina ez ezazue euskara oporretara bidali! Badakizue, guk geuk nahiago euskaraz!

Zuhatza Berriketan

Hiltzea ez da betirako joatea



Bada alde egin beharko ez lukeen jendea, eta horrek min ematen digu eta bidegabera iruditzen zaigu. Bada jendea, bertuteak eta ekintzak direla eta, merezi duelako, bizitza bikoitza eman diezaioten nahiko genukeena.

Baina errealitatean ez da hori gertatzen. Eta guztiok gauza bera galdetzen dugu: jende onak ez luke gehiago bizi behar?

Hala ere, bizitzak eta patuak badirudi ez dutela berdin pentsatzen. Hiltzeak ez du betirako alde egitea esan nahi, bakean atseden hartzea baizik. Hori dela eta, gure lagun Mikel hil zenean, ez du esan nahi betirako joan zenik, orduan hasi baitzen betirako bizitzen gure oroitzapen eta bihotzetan.

Maitasuna heriotzak ere ezin digu kendu. Maite zaitugu, Mikel.

Marian Larrañaga

Helburua eta eduki(ontzi)ak

Debabarrena Mankomunitateak bere webgunean dioenez (2021/07/02), "gora egin du birziklatu ezin diren hondakinen kopuruak, 2020ko lehen seihilekoarekin alderatuta". 100 tona gehiago bildu omen dira errefusaren zatikian, hau da, edukiontzi grisetan. "Horrek esan nahi du urtetik urtera hobetzen ari ziren datuetan atzerapauso txiki bat egon dela", dio jarraian. "Txikia" omen eta, bueno, gaitzerdi.

"Mankomunitateak azpimarratu du, beste behin ere, garrantzitsua dela hon-

dakin bakoitza dagokion edukiontzian uztea, guztiak birziklatu ahal izateko eta ingurumena zaintzen laguntzeko", gehitzen du geroago.

Helburua edukiontzi grisean urtean 522 tona hondakin gutxiago biltzea omen da.

Eta, horregatik jarriko ote ditu, bada, diogu guk harri eta zur, BOST edukiontzi gris, (sarri gainezka egon ohi den) edukiontzi marroi BAKARRAREN alboan?

Ez dirudi edukiak bat datozenik ustez lortu nahi den helburuarekin, zaborren kudeaketa (sinetsi nahi dugu)



"hobetzeko" asmoz, Mankomunitateak darabilen pedagogia metodo (gutxienez) xeblere honetan.

Jokin Lasa

Zumardi
pentsioa
Tel.: 688 800 619
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com

ORAIN
ileapaindegia
943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba

LABATAI
taberna
GOSARIAK GOIZEKO
06:00 ETATIK AURRERA
PINTXOAK, OGITARTEKOAK
ETA PLATER KONBINATUAK,
EGUN OSOAN ZEHAH

Debako kale-izenak eta generoaren ikuspegia

Kale-izenak gure nortasunaren zati dira, historia sozial eta politikoaren adierazpen bat gehiago, baina Deban genero ikuspegia ikusezina da. Debako kaleen izenak aldatzen joan dira, eta 1870eko eta 1949ko udal-artxiboko mapak eta gaur egungoak aztertuz, hainbat ondorio atera genitzake.

Azken 90 urteetan, aldaketa politikoan ondorioz, ikus daiteke Debako kale-izenetan ere aldaketak izan direla: *Plaza Vieja*-k (1870) izen berria hartu zuen, *Plaza del Generalísimo* (1949), eta gero *Plaza Zaharra*; *Plaza Nueva*-k (1870) *Plaza de los Fueros* (1949), eta gero *Foruen plaza*; antzinako *Carnicería kalea* (1870) *23 de septiembre* izan zen diktadura garaian, eta 80ko hamarkadan *José Manuel Ostolaza kalea*; *España plaza* (1949), gero, *Gudari plaza* izendatu zuten; lehen *Avenida Madrid* zena orain *Angulero* kalea da; *Ifarkale* (1870) *José Joaquín Aztiria* izan zen (1949), eta gero, berriro, *Ifarkale* izena hartu zuen.

1870eko mapan, oraingo *Lersundi* kalea zatituta agertzen da: *Bastión*, *Mayor* eta *Lersundi*; eta 1949an, kale osoa *Lersundi* kalea izendatu zuten. Aldaketa politikoak izan arren, *Lersundi* kaleak izena mantendu du, *Lersundi* kapitain jenerala esklabotzaren aldekoa eta *Kubako* independentziaren aldeko lehenengo altxamenduan errepresiozileak izan arren (*Berriketan*, 253. alea, 2020ko uztaila).

Euskaraz bai, baina emakumezko ez

Bestalde, aldaketa politikoan ondorioz kaleen izenak euskaldundu ziren arren, aldaketok ez zuten generoaren ikuspegia kontuan hartu. Desoreka handia dago: *Lersundi* (*Francisco*), *Ostolaza* (*José Manuel*), *San Roke*, *San Josepe*, *Markiegi* (*Florencio*), *Mogel* (*Juan*

José) kaleak; *Cárdenas* (*Manuel*), *Arrinda* (*Anastasio*) eta *Sorozabal* (*Pablo*) pasealekuak; *Berasaluze* (*Simón*) eta *Arakistain* (*Lázaro*) plazak; *Marinelak*, *Arrantzaleak*, *Angulero*, *Zesterokua*, *Sokagin*, *Astillero*, lehenengo gizonen ogibideen omenezko kaleak; *Calbetón* (*Fermín*) zumardia, eta *Santiago* hondartza.

Beste batzuk izen neutroak dira: *Foruen*, *Zaharra*, *Gudari*, *Agirretxe* eta *Nafarroa* plazak; *Osio*, *Maxpe*, *Latzurregi*, *Agirretxe*, *Portu*, *Itur*, *Ifar*, *Bastinuixa*, *Montreal*, *Itsasbegi*, *Gurutze* eta *Itziar bidea* kaleak, eta *Lapari* hondartza.

Itziarren, aldiz, izen neutroak dira nagusi: *Mutxiarte*, *Prozesio*, *Alondegi*, *Goiko*, *Erronda* eta *Galtzada* kaleak; *Zabalsoro* eta *Herriko* plazak.

Betidanik, eta gaur egun ere bai, emakume-izenak falta izan dira gure kaleetan. Beno, ia... Bai baitago plaza bat emakume izenarekin: *Tene Mujika* (*Robustiana*) plaza. Plaza hori ez da oso ezaguna, osasun-zentroaren ondoan dago, nahiko ezkutuan. Eta Itziarren, ikusgarritasun handiagoz, elizaren azpialdean, Oteizaren eskultura bat dago *Amatasuna* izenekoa.

Garaiz gaude debar historikoak aintzat hartzeko: *Sasiolako* *Maria Estibaliz*, *Lasturko* *Milia* eta *Aloseko* *Usua*, *Andra Madalen* eta *Katalintxu*... Baita gaur egungoak ere.

Eta zergatik ez? Zumardian, *Florentzioren* (*Markiegi*) eta *Ferminen* (*Calbetón*) artean, emakumeren baten eskultura bat.

Deba eta Itziar kale-izendegian, emakume debar eta itziarrei ikusgarritasuna ematea falta da; gure gizartearen erdiari.

Jose Luis Albizu



Jostunak

Bizitza hari-bobina batean biltzen dela esango nuke. Hasieran ederki beteta dagoela dirudi, asko dagoela gastatzeko. Baina beharrak sortu ahala hari horretatik tiraka hasten gara, eta uste baino hari gehiago gastatzen dugu, hasieran ez baitakigu brodatuak behar bezala egiten. Konturatu gabe hari-bobina mehetzen hasten da, eta brodatzeko teknikak hobetzen saiatzen gara, haria agortu ez dadin. Baina ezustean iristen da bobinaren beste aldean dagoen hari punta hori ikusteko eguna. Eta, orduan, josteari uko egitea pentsa dezakegu, baina jostun on batek ezin dio

brodatuak egiteari utzi, eta hari gutxiago erabiliz josten ikasten du.

Nahi gabe hariaren beste punta esku artean dugu eta atzera begiratzen dugu. Haren arrastoak nonahi daude, kolore berezia daukate, sendotasun eta tentsio desberdina, baina perfektuak dira, unean beharrezkoak ziren tokietan brodatuak.

Haria amaitu da, baina jositakoak, dudarik gabe, iraungo du denboran. Orain, hariaren beste muturra ikusi bitartean, gure bobinatik tiratzea dagokigu, aurretik brodatutakoak errepikatuz edota beharren arabera horiek eraldatuz.



MARI SEARA



HERRIKOAK BERRIKETAN

DEBAKO CARITAS

Berriketan aldizkaritik jaso dugun gonbitea aintzat hartuta, gure izate eta zerbitzuaren aurkezpen labur bat egingo dugu hurrengo lerrootan:

Parrokiako taldea

Parrokia ooren ezaugarri behar du izan elkartasun- edo karitate-dimentsioa lantzea, herrian beharra dutenei laguntzeko. Debako sozio-karitatezko taldea hamabi lagunez dago osatuta eta parrokiaren izenean gauzatzen du bere zerbitzua. Taldeko kideon arteko harremana estua da eta hilean behin elkar-tzen gara.

Eginkizuna edo misioa

Gure eginkizuna hiru aditzekin laburbil dezakegu: harrera egin, entzun eta lagundu. Horretarako, lehenengo eta bigarren asteko asteazken goizetan harrera egiten zaie pertsona eta familiei Caritasen bulegoan (Ifar kalea 8an). Ordua aurrez ematen zaie, beren bizi-baldintzei erreparatuz: egoera juridikoa, osasuna, etxebizitza, eskolatzeta, diru-premia... Hogei bat kasu aztertzen eta laguntzen dira hilero. Laguntzetarako

Elizbarrutiko Caritasak dituen irizpide-ak hartzen dira kontuan. Hilero lau bat mila euro banatzen dira laguntzetan.

Horrezaz gain, Martuteneko eta Zaballako kartzeletara joan ohi dira bi lagun bailarako presoak bisitatzera eta lagun egitera. Gaixo eta adineko pertso-nei bisita egin eta Jauna eramatera hurbiltzen dira beste lau pertsona.

Eta abuztuan Tonbola antolatzen dugu herriko San Roke festen inguruan; 30-35 boluntariok hartzen dute parte zeregin horretan.

“Parrokia ooren ezaugarri behar du izan elkartasun- edo karitate-dimentsioa lantzea, beharra dutenei laguntzeko”

Elkarlana

Herriko Gizarte Zerbitzuekin elkar-lanean eta Gurutze Gorriarekin harre-manetan jarduten gara. Gizarte Zerbitzuekin, esaterako, honako ekime-

nak gauzatzen ditugu:

- Janari-banaketa: hilean behin egiten dugu elikagaien partiketa, eta Bergarako Elikagai Bankutik ekarritakoak eta Udalak eta Caritasak erosita-koak izan ohi dira; baita erriberako baratzean ekoiztutako barazkiak ere. Hartzaile gehienak etorkinak dira, baina badira bertakoak ere. Guztira 60 bat familiak eta 115 pertsonak jasotzen dute janaria.

- Baratza-proiektua: Udalak alokatu-tako lursailean garatzen da proiektu hau eta dozena erdi bat lagunek egiten du lan astearte eta ostegunetan bertan, hiru begiraleren gidaritzapean. Emaitzaren parte bat beraientzat izan ohi da, eta beste erdia janari-banaketarako.

- Hizkuntza ikastea: etorri berriak diren etorkinei gaztelania ikasteko auke-ra eskaintzen zaie. Sarritan beren jatorrizko hizkuntzan ere alfabetatu gabe egoten dira eta ezinbesteko izaten dute gaztelaniaz moldatzeko gai izatea; euskarara ere hurbiltzen dira. Jubilatuen Egoitzan elkartzen da bost laguneko tal-detxoa eta Caritaseko partaide bat dute irakasle.

Xabi Osa munduko kirolari onenen artean Nobull CrossFit Games jokoetan

Uztailaren 27tik abuztuaren 1era bitartean Nobull CrossFit Games jokoak izan dira Madisonen (Wisconsin, AEB) eta, kirol egokituaren munduko kirolaririk onenen artean, Xabi Osa debarra bosgarren gelditu da bere kategorian (*Men Upper Extremity* -gizonak, goiko gorputz-adarra-). Casey Acree estatubatuarra izan da lehena atal

horretan, 625 punturekin.

Osaren kategoriakoei sei ekitalditan hartu dute parte: lerak arrastatzea eta blokea iraultzea; sprinta; horman gora ibiltzea, eta pisua altxatzea; soka igotzea eta hondar-zakuak garraiatzea; korrika; eta "echo bike" txirindu estatikoa eta pisua altxatzea. Guztira 225 puntu eskuratu ditu Osak ekitaldian.

Aurten ere ez dela San Roke jairik izango gogorarazi du Debako Udalak

Uda hasieran jakinarazi zuen moduan, Udalak gogorarazi nahi izan du aurten ez dela San Roke jairik egingo Deban. Prentsa ohar baten bitartez azaldu du zergatik hartu duen erabakia.

Udal ordezkarien esanetan, "COVID-19ak eragindako osasun-egoeraren ondorioz, ez dago baldintza egokirik festak ospatzeko. Azken asteotan intzidentzia tasak gorako joera hartu du, Deban bezala nazioartean eta, hortaz, osasuna zaintzeko beharra handitu egin da. Eta are beharrezkoagoa da jende pilaketak ekiditea. Debako Udalak beste behin eskatu nahi die debarrei zentzuz joka dezaten, beharrezko prebentzio neurriak har ditzaten, eta bereziki jende

pilaketak ekidin ditzaten, gaitzaren zabalpena murriztu dadin".

Nabarmendu dutenez, "luzea eta gogorra izaten ari da pandemiaren garaia, baina beharrezko neurriak hartu ezean zaila izango da egoera iraultzea. Udako oporraldi sasoi betean guztion nahia da kalean, lagun artean ibiltzea... osasun-egoerak, ordea, ez du hori erraz jartzen. Aitzitik, prebentzio neurriak hartuta, ikusi da kultura ekimenak egitea segurua dela, eta hori izango da Udalak herritarrei eskainiko dena. Egoera bere onera bueltatzen denean izango dugu San Rokeak ohi bezala ospatzeko aukera, baldin eta aurretik geure buruak zaintzen baditugu".

Egun osoko egitaraua dakar irailaren 4an FederArte Festibalak



Irailaren 4an (larunbata) egingo da FederArte, surfa, kultura eta musika uztartzen dituen festibala. Egitarau zabala prestatu dute hitzordurako. Egunari hasiera emateko, 9:00etan Txiki Body Surf topaketa izango da hondartzan. Eta, 11:00etan hasi eta egun osoan zehar, 20:00ak bitarte, merkaturia izango da zumardiko kioskoan.

Eguerdiko 12:00etan, Yako Surf Race izango da (Euskal Herriko Surf Race txapelketa) eta dagokion sari-

ematea ondoren, 14:30ean, Yako Surf Eskolan. 15:00etan, berriz, bazkari herrikoia egingo da Ondargainen.

Arratsaldean, gainera, "FederArteren filosofia integratzaile eta hedatzailearen" adierazgarri nagusi den surf inklusiboa izango da Yako Surf eskolan 16:30ean. Handik gutxira, 17:00etan, surfari skatea gehituko zaio Miramarko plazan egingo den Surf Skate topaketaren bitartez.

Azkenik, iluntze aldera, festibalarren baitan antolatutako egitarauari amaiera emanez, zumardiko karpan hainbat kontzertuz gozatzeko aukera izango da 20:00etatik aurrera.



ITSASO ARAMENDI

Nartziso

Badirudi pertsona batzuek aditzak lehen pertsonan baino ez dakizkitela deklinatzen. Ni, ni eta ni. Aurrekoan kafea hartu eta, aspaldi elkar ikusi gabe geundenez, gure azken gorabeheren berri izateko geratu ginen bost lagun. Horretarako geratu baginen ere, mahaian jartzeko lagun baten monologoa entzun behar izan genuen ia ordubete luzez. Arnasa hartzeko ia astirik gabe, bere nobedade guztien berri eman zigun. Bakarrizketa bukatutakoan, besteok, berandutu zitzaigunez, ia hitza hartzeko aukerarik gabe eta elkarren berri izan gabe agurtu behar izan genuen elkar. Okerrena da bera ez zela jabetu ere egin.

Ziur nago zuen inguruan ere izango dituzuela horrelako pertsonak, pertsona egozentrikoak. Bere bizitzako detailerik txikiak badakizkizuk. Zer dakit nik: bere lankide guztien izenak eta laneko gorabeherarik txikiak edota bere seme-alabek eskolan ikasgai bakoitzean atera dituzten notak.

Uda sasoi heltzean bere oporplangintza osoa zerrendatzen dizu: bisitatu asmo dituzten herri eta hondartza guztiak eta baita jan eta egitea aurreikusten duten guztia ere. Halako batean galdetuko dizu: "Zuek ze, hemendik?"; ozta-ozta utziko dizu erantzuten berriro bere planera itzultzeko. Bere bizitza zurea baino askoz interesgarriagoa dela uste duenez, bere buruan ez da sartzen kontatzeko ezer interesgarri izan dezakezunik.

Greziar mitologian Nartziso izan zen uretan bere isla ikusi eta harekin maitemindu zena. Nago gero eta Nartziso gehiago daukagula inguruetan.

“Kultura demokratiko parte-hartzailea sortzeko gunea izango da Dagigun”

Debako Udalak, bere partaidetza-batzordetik, “udalerriko gizarte- eta administrazio-eragileen kultura parte-hartzailea eta demokratikoa aktibatzeneko prozesu sakon eta trinkoa” jarri du abian. Zumardiko pasealekuari buruzko herritarren eztabaida irekitzeko beharri erantzun nahian abiatu da prozesua, eta uztailearen 15ean aurkeztu zen jendaurrean, zumardian bertan.

Herritarrak eta eragileen ordezkariak bildu ziren Udaleko partaidetza-batzordeak (Gilen Garcia, Itziar Irizar, Pedro Bengoetxea eta Eneritz Gomez) sustatuta egin zen ekitaldian. Bertan, hitza hartu zuten Garcia alkateak, Mikel Pagola Gipuzkoako Foru Aldundiko Partaidetzako zuzendariak, Itziar Gonzalez arkitektoak eta Igor Ahedo EHUko irakasleak.

Partaidetza-batzordearen bateratze politikoko espaziotik eta Udaleko arlo estrategikoetako teknikarien eta kolaboratzaileen inplikazioarekin, udalerriko elkarteetako eragileen eta herritar aktiboen mapa egiten eta eguneratzen hasi da Udala, haiekin batera lankidetzarako gune egonkor eta iraunkor bat eraiki nahian. Espazio hori aurrerantzean *Dagigun partaidetzarako gunea* izango da.

Udal ordezkarien esanetan, “herritarrei beren protagonismoa itzultzea da helburua, beren lehentasunak eta beharrak definitzeko; partaidetza-batzordearekin partekatutako gaikuntza eta lidergoa ematea, kalitate demokratikoa eta gardentasuna hobetzeko erabakiak hartzerakoan eta politika publikoetan”.

Zumardiari buruzko eztabaida puntualaren aurretik, tartean dauden pertsonak osatutako sare bat eraikiko da. Era berean, dinamizazioaren, parte-hartzearen eta kalitate demokratikoaren arloko prestakuntzarako aukera emango zaie eztabaidan parte hartu nahi duten gazteei, eta, horrela, talde bat sortuko da, antzeko prozesuetan laguntzen eta inplikatzeko jarraitzeko behar den prestakuntzarekin, bai beren erakunde eta udalerrietan, bai inguru-



ruko udalerrietan. Itziar Gonzalezek eta Igor Ahedok emango diete formazioa. Uztailearen 15ean bertan zortzi pertsonak hartu zuten parte lehen bileran.

“Komunitatea eta lurraldea egiteko modu berritzaile eta horizontala praktikara eramateko anbizioa dago, eta bertako biztanle guztiok kultura demokratiko parte-hartzailea sortzeko borondatea dugu”, Gilen Garcia alkatearen hitzetan.

GFAko Mikel Pagolak zoriondu egin zituen partaidetza-batzordeko kideak eta herritarrak, Dagigun “parte-hartzea sustatzeko anbizio handiko prozesu baten hasiera” dela nabarmenduta. “Prozesu horren zain egongo gara, eta behar duzuen guztian lagunduko dugu, lurralde historikoko beste udalerriri batzuetan erreplikatu ahal izateko”, adierazi zuen.

Igor Ahedo EHUko irakasleak bideo bidez hartu zuen parte ekitaldian, Zumardiaren prozesuan aurrez eman duten aholkularitzari buruzko azalpenak emanez. Herritarren parte-hartzearen balio estrategikoari buruzko hausnarketa labur bat ere egin zuen.

Bestetik, Dagigun partaidetzarako gunea sortzeko prozesu kooperatiboaren proposamena aurkeztu zuen Itziar Gonzalezek bertaratuen aurrean. “Prozesu hori 2021eko martxoan hasi zen, eta lehen etapa batean amaituko da, Zumardiko partaidetza-prozesua eginez”. Ondoren egin daitezkeen partaidetzan oinarritutako bestelako proiektuak Dagigunen barruan landuko dira.

iritzia



LEIRE AGIRREBEÑA

Haserre nago. Albistegietan, lagunartean, laneko kafe-orduan ez da beste gairik. Pandemia, arauak, txertoak... Ni ere aspertuta nago gai horiekin, baina egun hauetan bereziki politikariek esandakoarekin sutu naiz.

Jakin badakigu sarritan beraien txotxongilo garena, baina oraingoan gehiegizkoa deritzot. Nahastu egiten gaituzte, orain neurri berri bat, orain gomendio bat, eta gehien harritzen nauena: guk polizia-lanak egiteko gonbidapena. Horren guztiaren atzean, herritarrok elkarren aurka jartzeara eta geure artean haserretzea dator. Ez al da gehiegizkoa hori eskatzea?

Horri, gainera, hainbat eta hainbat kontraesan gehitu behar dizkiogu: lehenengo etxeratze agin-

dua irregularra ote zen edo ez, dendak itxita mantendu behar ote ziren edo ez...

Azken urte eta erdian gizarteak ondo erantzun duela esango nuke, baita asko ikasi dugula ere, gure egoera mentala ukituta gelditu den arren.

Ez dut esango arau guztiak zorrotz bete ditudanik, baina lehen ohituta ez geunden era batera bizitzen ikasi behar izan dugula bai. Elkarren irribarrea ikusi gabe, besarkadarik eman ezinda, lagun eta familiarekin nahi baino gutxiago egoten...

Polizia-lanak egin gabe ere, egoera honi aurre egingo diogulakoan nago; beraz, zaindu, eta saiatu momentua aprobetxatu eta ahalik eta ondoen bizitzen.

Poliziak

Udako Kultur Aukera egitarauak giro ederrean darrai aurrera Itziarren

Bizi dugun osasun-krisiaren harira festa eta ospakizunik gabeko bigarren uda honetan ere kultur egitarau oparoa antolatu dute Itziarren, lankidetzan. Joan den ekainaz gerostik hainbat ekitaldi egin dira dagoeneko, baina aurrera begira ere bada zer gozatu Udako Kultur Aukeran (egitarau osoa hemen online: <https://issuu.com/itziarkoauzoudala>).

Abuztuaren 15ean, esaterako, 10:00etan, Garazi Pascual kable gaineko dantzari lasturtarrak zirku munduan murgiltzeko tailerra eskainiko du frontoi zaharrean. Zirkuko hainbat diziplina ezberdin ezagutu eta lantzeko aukera

izango da bertan. 12:00etan, berriz, Eli Barandiaran akrobatarekin batera, publiko guztiari zuzendutako 20 minutuko pieza txikia eskainiko du Pascualek.

Abuztuaren 20 eta 21ean, bisita gidatua izango da elizan. Ismael Manterola EHUKo irakasle eta historialariak gidatuko du. Bi txanda izango dira, 10:00etan eta 12:00etan.

Abuztuari amaiera emateko, 27an, 19:00etan, *Gurerara* ikuskizuna ekarriko du Oskar Estangak Itziarrera. Ikuskizunean, bertsolaritzaren teknika eta kantagintza kultura urbanoaz nahasten ditu egileak, musika oinarriak sortuz.

Irailean izango da XIV. Animadeba Nazioarteko Animaziozko Zinemaldia

Irailaren 8tik 12ra bitartean, XIV. Animadeba Nazioarteko Zinema Jaialdia izango da zumardiko karpan, egitarau oparoaz.

Osasun-krisia zela eta iaz jaialdirik izan ez bazen ere, aurten osasuntsu dator Animadeba Zinemaldia. Izan ere, 98 herrialdetako 1502 film labur aurkeztu zituzten jaialdira. Behin izen-emate aldia agorturik, 14 debarrek osatutako batzordeak ikusi zituen filmak, eta atal bakoitzeko hamar film labur aukeratzeko ardura ere batzorde horrena izan zen.

Irailaren lehen hamabostaldian

ikusgai izango ditugun filmak bi sailetan egongo dira banatuta: Sail Nagusian eta Panorama Sailean. Lehenengoan, nazioarteko hamar film laburren artean, besteak beste, ekoiztetxe euskalduna duten *Ehiza* eta *Homeless Home* film laburrak lehiatuko dira. Panorama Sailean, berriz, Josep Bartolí artista katalanari buruzko luzemetraia izango da, Aurel marrazkilari ospetsuak zuzendua, *Josep*.

Horiez gain, haurrentzako tailer eta filmak ere izango dira zinemaldiaren egitarauaren barruan.

300 bat lagun bildu zituen Hirulan elkartearen "Ipuinen mesedea"-k

Uztailaren 24an Hirulan elkartearen osatzen duten Myriam Martin, Aurora Arritokieta eta Ane Landak "Ipuinen mesedea" izeneko ikuskizun arrakastatsua aurkeztu zuten zumardiko karpan 300 bat pertsonaren aurrean, bi saiotan banaturik.

Ikuskizunean, ikuspegi bereziaz sortutako lau tradiziozko ipuinei buruzko filma eman zuten, eta pelikula eraikitzen lagundu zuten familia-kide, adiskide eta herritarrek ere ekitaldian desfilatuz hartu zuten parte.



JON ETXANIZ

Hormesia

"Dosi altuan kaltegarria izan daitekeen agente kimiko edo ingurumen-agente baten aurrean, dosi baxuan jartzeak zelula edo gorputz baten egokitze erantzun onuragarri bat dakar".

Beste hitz batzuetan esanda, hiltzen ez gaituenak indartsuago egiten gaitu.

Gaur egun immunologia eta kirol-errendimendua bezalako alorretan puri-purian dagoen kontzeptua da hormesia.

Azken urteotan, nik neuk bizi izan ditut neure burua hotza, beroa, oinutsik ibiltzea eta baraua bezalako estimuluen aurrean jartzeak dakartzan onurak.

Gaur egun kontzeptu berria badi-rudi ere, hormesiak berebiziko garrantzia zuen antzinako zibilizazioan. Egun, azalpen zientifikoetatik definitzen den kontzeptu hau ondo bereganatu zuten, adibidez, estoikoek, beraien bizimoduaren oinarria baitzen hormesia. Horren isla dira Seneka filosofoaren hitz hauek:

"Beti haizetik babesten dena, bere oinak uneoro bero dituelarik eta hotzetik isolaturik, haize leunenari aurre egiterakoan ere arriskuan izango da. Gehiegikeria denak dira txarrak, baina ez dago erosotasun gehiegikeria baino okerragorik. Buruari egiten dio kalte. Errealitatearen pertzepzioari eragiten dio, egiaren eta gezurraren arteko muga lausotzeraino". Hitz horiek, duela bi mila urte idatziak izan arren, gaur egungoak dirudite.

Ez dira erosoak bizitzen ari garen garaiak, baina, agian, deserosotasun guztiaren erdian oreka bilatzea ote da gakoa?

Senekari ere leku bat egingo nioke AstraZenekaren garaian.

Baroja Collet: "Arte Eskolarik gabe ezingo nukeen nire eskultura-lana burutu, ezta grabatuan sakondu ere"

1957an Le Creusoten (Frantzia) jaiotako Jose Luis Baroja Collet artistaren lana ikusgai dago Gipuzkoan, Madrilen, Eivissan... Orain, Bertatik Bertara lana dakarkigu Lukax Dorronsororekin (testugilea) elkarlanean; grabatuak testuan arnasten denari gerturatzen zaizkio. Artisau erara sortutako liburua da, grabatu- eta estanzazio-teknikez eta serigrafo eta koadernatzaile banaren parte-hartzeaz egina. 18 aleko edizio laburrekoa da liburu berezi hau, "abentura hauek merkaturaezinak dira eta".

Zarauzko Ispilu Arten ikusgai izan duzu oraintsu Bertatik Bertara erakus-keta. Zer aurkeztu duzu bertan?

Zarautzen liburua zabalik eta markoe-tan egon da, osotasunaren ikuspegia izateko. Desagertutako Debako Arte Eskolari eskainitako eskultura handi bat ere aurkeztu dut, eta beste ertain bat. Bestalde, brontzean galdatutako formatu txikiko eskulturak ere bazeuden, dena collage eta grabatuz lagundurik. Erakusketan nire praktika artistikoa garatzen den unibersoaren zati handi bat egon da presente.

1979an grabatua ikasi zenuenetik alor horretan barneratu zara gehien, nahiz eta eskultura, collageak eta beste teknika batzuk ere landu. Zer ematen dizu teknika horrek?

Teknikek beren nortasun propioa dute eta ondo ezagutu behar dira.

1979an grabatu kalkografikoa ikasi nuen Mari Puri Herrero eta Gabriel Ramos Urangarekin, herrialde honetako grabatugile handienetako bi. Nire artisau-prestakuntza zela eta oso ondo moldatu nintzen teknika horretan; garai hartan damaskinatugintzan aritzen nintzen.

Grabatuak metalezko plantxa edo matrize batean lan egitea ahalbidetzen dizu, eta gero hura paperean inprima dezakezu. Horrek zure lana hainbat aldiz inprimatu ahal izatea eta irudia biderkatzea dakar. Emaizta diren estanzak zuzenean matritzetik datozen lan originalak dira, ez kopiak, eta eskuragarri merkatu-



ratzeko aukera ematen dizu horrek.

Beti garatu izan dut nire lana teknika tradizionalekin, lan-espazio horretatik oraindik gauza interesgarriak eman daitezkeela uste baitut.

1978. urtetik bakarkako 30 bat erakusketa egin dituzu, ehun erakusketa kolektibo baino gehiagotan hartu duzu parte, zure lana museo ugaritan dago ikusgai. Dena ez zen lautada izango...

Artista plastiko izatea sekula amaitzen ez den maratoia da.

Euskal Herritik kanpo, eta nire belau-naldiko eskulturaz ari naiz, "Euskal eskultura" deitua soilik ezagutzen da, Oteiza osteko eskultura ardatz duena; ni beste eskultore batzuekin "Beste euskal

eskultura" deitzen dudaren parte naiz.

Bizi dugun testuinguruan artearen profesional izateak ezinezko dirudi. Frantzian, Alemanian, Ingalaterran, Italian... karrera ertaineko artistak beren lanetik bizi daitezke, beste kultura bat dagoelako, eta produkzio artistikoaren zati bat bereganatzen duen merkatu pribatu bat ere badagoelako. Praktika artistikoan lan egiten duten belaunaldi berriek espazio eta irudien ikuskeran, antolaketan eta harreran aldaketa egin dute, eta horrek dakar lanok merkaturatzeko are zailagoak izatea, eta, beraz, diru publikoari esker bizirauten duten artista ofizial bilakatzen ari dira (obren eroste, beka, egoitza, ikastaro, erakusketen muntaketa, komisariotza...).



Zure curriculumean sari ugari aurki genitzake. Baten bat zuretzat esanahi berezikoa? Zergatik?

Enkargu publiko bakarra jaso dut, 2000. urtean Eibarko Udalak eginikoa: Txantxa Zelaiko parkerako eskultura bat. Erronka handia izan zen; horma baten kontra egin beharrekoa zelako, Eibarren zelako, eta, sistema sustraktore baten bidez sortu dudana eskultura bakarra delako. *Begiraden gurutzaketa* du izenburu eta, nire ustez, egun erabat integratua dago bertan.

Horrez gain, 2017an Antón Piñelen gonbidapenari esker, Lanzaroten eginiko eskultura bat ere nabarmenduko nuke. *Begirada altua* du izena eta esperientzia eskultoriko ederra izan da.

Debako Arte Eskolan 1983tik kalkografiatzko grabatuaren ikasgelako ardura-dun. Esan izan duzu hura gabe zure ibilbide pertsonal eta artistikoa oso bestelakoa izango zatekeela.

Jakina! Une hartan pinturan jarduten nintzen, grabatuan esperientziarik gabeko hasiberria nintzen. Asko ikasi nuen Ignacio Chillidari esker, irakasle laguntzaile modura aritzen baitzen. 1987an hasi nintzen eskulturarekin eskolaren instalazioak aprobeztatuz, eta ez nintzen gelditu hura itxi arte. Segur aski Arte Eskolarik gabe ezingo nukeen nire eskultura-lana burutu, ezta grabatua garatzen sakondu ere. Arte Eskolako grabatu-irakasle izateari esker 400 grabatu baino gehiago egin ditut eta milaka estanpatu.

2004ko Kezkak erakusketaz zenioen helburu zenuela "irudiak iradokitzea, ikusleak bere kabuz osatu behar dituenak"...

Tolosako Aranburu jauregian egindako erakusketa garrantzitsu bat izan zen. *Kezkak* zen lanaren definiziorik leialena; beti pentsatu izan dut lanek beren burua azaldu behar dutela, laguntzarik gabe. Artean asko erabiltzen da Jean-Luc Godard-en aipu hau:



Ezkerreko bi irudietan "Bertatik Bertara" liburua egiteko erabili diren kobrezko plantxak eta azken emaitza. Eskuinean, Lanzaroten dagoen "Begirada altua" eskultura.

"Ez zait interesatzen zerbait zehatza esatea, interesatzen zaidana norbaitekin konektatzea da". Norbaitekin konektatzen duzunean ixten da benetan egile-obra-ikusle hiru; gehienetan ikuslea da, bere emozio eta kultur ondarearekin, obra osatzen duena.

"Chillida espazioaren poetikaz mintzatzen zaigu; nire lanak formen poetika du ardatz"

Beltza du kolore gako zure obrak; kritikarien esanetan, kezka metafisikoa sorrarazten duzu eta zure lanek Tapies eta Chillida gogorarazten dituzte.

Bai, beltza da nire kolorea. Urte askoan zehar, nire prestakuntza eta damaskinatzaile lanen aldiak, beltzak berebiziko



garrantzia izan zuen, urre eta zilarrean egindako lanak ikusgarri egiteko hondoan eskaintzen baitzuen. Beltzak garrantzitsu izaten jarraitu zuen nire pinturaren garapenean, testura eta erliebeekin batera.

Eskulturarekin, gehien erabili dudana materiala burdina beltza izan da. Hala ere, metal horrek sortzen duen herdoilak altzairu herdoilezinarekin lan egitera mugiarazi nau.

Jaio nintzenez, Oteiza, Tapies eta Chillida garaiko Europako plastikaren berritzaileak ziren; orain, hiru artistak desagertu direnean, kultur mundua eragiten jarraitzen dute beren lanekin.

Gainazaleko irakurketa batean, baliteke nire grabatuek Chillida gogoraraztea, hark erabiltzen zituen oinarriko grabatuteknika berberak erabiltzen ditudalako. Chillidaren obran pixka bat sakontzen badugu, ordea, laster ohartuko gara "espazioaren poetika"z mintzatzen zaigula; nire lanak gehiago du ardatz "formen poetika".

Seven Clovers
Irish pub
943 191 295

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA
Hondartza kalea, 3-4 behe - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

LAMARIANO
Oinetakoak
Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52



Debarrak munduan

JORGE AGUIRRE DAVILA

Jorge Aguirre Davila, maiatzeko Debarrak Munduan atalean elkarrizketatu genuen Koldoren anaia, dugu oraingoan protagonista. Bilboko Nautika Eskolan graduatu zen Aguirre kapitain tituluarekin. Hamazazpi urtez itsasoan ibili eta gero, AEBetara joan zen nabigazio konpainia batean lan egitera (2001ean presidente izendatu zuten) eta 2013an hartu zuen erretiroa. 64 urte ditu eta, besteak beste, ETBn pilota jarraitzen duela kontatu digu, 'pilotazale amorratua' izaki.

Non bizi zara? Nolatan?

1980an etorri nintzen AEBetara eta ordutik Marltonen bizi naiz, nire enpresaren bulegoa gertu dago eta. Marlton herria New Yorketik ehun kilometro ingurura dago, hegoaldera.

Zerk eraman zintuen horra?

Urte asko itsasoan igaro eta gero, beste zerbait egiteko garaia iritsi zitzaidan. Houstonera joan nintzen, eta enpresa batean lanpostua eskaini zidaten AEBetan. Interesgarria iruditu zitzaidan beraien bulegoetan lan egitea, eta bizitza aldatzeko erabakia hartu nuen.

Kontatuko diguzu nolakoa den zure eguneroko bizitza?

Erretiratu nintzenetik nire bizitza oso etxekoa da. Goizean ordubetez aritzen naiz gimnasioan. Gero, Interneten munduko berriak irakurtzen ditut, baita Euskal Herrikoak ere. Betidanik gustatu izan zait sukaldaritza, beraz, Karlos Argiñanoren menu batzuei jarraituz, bazkaria prestatzen dut; askotan bere telebista saioak ikusten ditut. Eguraldi ona egiten badu, etxeko lorategian ibiltzen naiz apur bat endredatzen. Arratsaldean irakurtzea gustatzen zait, bai ingelesez, bai euskaraz. Nire eguna telebistaren aurrean amaitzen da. Batzuetan kirol nazionala ere praktikatzen dut: erosketak egitea!

Espero bezalakoak dira AEBak? Zerk harritu zintuen?

AEBetara etorri nintzen banekien nolakoa zen hemengo bizitza. Askotan egona nintzen hemen itsasontziz. Esan dezaket gure etxeko bizitza eta bereziki bizitza soziala oso desberdina dela. Hemen gizakien arteko harremana oso eskasa da.

Zure egunerokoan euskarak zein leku du?

Duela urte batzuk New Yorkeko Euskal Etxeko kideekin euskaraz hitz egiteko aukera izaten nuen. Azkenaldian bidaiatzeko



apatikoago nago, adina izan daiteke. Hala ere, egunero ETB ikusten saiatzen naiz, dena euskaraz, eta ordu bat edo bi pasatzen ditut idazten eta irakurtzen. Ez dut dakidana ahaztu nahi.

Bertako hizkuntzarik ba al dago hor? Hizkuntza txikirik edo?

AEB etorkinen nazioa da eta 300 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira. Horietako erdia baino gehiago amerikar indiar tribuek hitz egiten dute. Interesgarria da jakitea, adibidez, Navajo nazioak beren hizkuntza irakasteko programak dituela hainbat eskola elebidunetan, eta ia 200.000 navajo indiar elebidunak direla. Siux hizkuntza, yupik herriak (jatorrizko alaskarrek) hitz egiten du, eta txeroki hizkuntzak eta beste batzuek eguneroko hizkuntzak izaten jarraitzen dute.

Zer eramango zenuke horra Debatik? Eta zer ekarriko?

Nire Debako familia, baina ez dut uste moldatuko lirakeenik. Internet eta euskal hedabideei esker mundu horretako apur bat ekarri dezaket hona, baina kulturalki isolatuta sentitzen naiz. Ekarrri? Miren (alaba) ekarriko nuke Debara. Hala ere, oso amerikarra da, bizitza osoa hemen eman du eta.

Debara bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Oporretan, Deban, norbaitek galdetuko balit baietz erantzungo nioke. Baina zailagoa da hemen nagoenean erabakia hartzea. Posible ikusten dut sei hilabete ematea leku bakoitzean, baina oraindik ez nago ziur.

Laburrean

Paisaia bat:

Debako hondartza itsasontzi batetik

Usain bat:

Belarra mozten denekoa

Zapore edo jaki bat:

Makarroiak tomate eta txori-
zoarekin

Gustuko dut...

Lagunekin jan eta edatea

Ez dut gustuko...

Neguan elurretan gidatzea

Amets bat:

Miren alabarekin Euskal Herrira itzultzea, baina ametsak amets.



Deba-Itziar

BIRA



UZTAILEKO BIRA | SARIDUNAK



Egurrezko kutxa:
Olatz Beitia

Larruzko poltsa:
Kike Sarasketa



Larruzko poltsa:
Maddi Astigarraga

*Produktuak 2021/09/15 baino lehen jaso beharko dira, turismo bulegoan

UZTAILEKO ERANTZUN ZUZENAK

1. Epizentroa | 2. Zubeltzu | 3. 1989 | 4. Ibon Aranberri | 5. Deskonozido | 6. Akazia

ABUZTUKO BIRA:



1. Nor da ezkerreko argazkiko musikaria?



2. Zein urtetan sortu zen Debasket Saskibaloia Kluba?

- A) 2009
- B) 2011
- D) 2014
- E) 2016



3. Nor egin zuen zumardian dagoen Polentzi Markiegiren omenezko eskultura?



4. Zein da Hirulan-ek aurten aurkeztu duen ikuskizunaren izena?

- A) Iraganean josia
- B) Harietatik tiraka
- D) Ipuinen mesedea
- E) Jostunak



5. Zein musika taldeetako biolinista da Irati Irizar?



6. Non dago ezkerreko argazkiko leihoa?

- A) Elorriagako San Sebastian basilizian
- B) Itziarko santutegian
- D) Debako Santa Maria elizan
- E) Lasturko San Nikolas basilizian

PARTE HARTZEKO:

www.labur.eus/BIRA_abuztua

Erantzun gehien asmatzen dituztenen artean

Parte hartzaile guztien artean

Debako merkatuko ekoizleen
produktuez osatutako
bost saski
banatuko dira

Debako merkatuko ekoizleen
produktuez osatutako
hamar saski
zozketatuko dira

Erantzunak bidaltzeko azken eguna: **irailaren 7a**

Irabazleen izenak Zuhatzka Euskara Elkartearen Facebook orrian argitaratuko dira. **Animatu!**



KOLOREZ BLAI

UDA LEKUAK

Zuhertza deba euskara elkarteak 2021



"Kolore artean mugituz, eskuak gora altxatuz, herri guztiari erakutsiz, euskaraz egiten dugula hitz, denok dantzatzuz, elkar maitatzuz, koloreak batuz, Kolore Anitz, Kolore Anitz, gora Kolore Anitz!"

Uztailean festarik festa ibili gara Kolorez Blai udalekuetan. Bai gure festak, bai munduko festak ospatu ditugu eta gogotsu ibili gara hemengo zein beste herrialdeetako tradizioetan murgildurik.

Ez ditugu ahaztu ohikoak diren ekintzak, mendi irteera eta hondartza eguna, adibidez. Baina, horiez gain, aurten ekintza eta festa-egun berriez gozatu dugu: Debarren eguna, Marinel eguna, Batukada eguna, Rock eguna eta abar. Udalekuei amaiera bikaina emateko, berriz, San Roke eguna ospatu dugu zumardiko kioskoan, musika eta hamaiketako ederrarekin.

Bizi dugun egoera dela eta, haurrek musukoa

erabili behar izan dute eta eskertzekoa da izan duten pazientzia. Oso ondo errespetatu dituzte jarritako neurriak eta hori, benetan, zoriontzekoa da! Eskerrak, era berean, Zuhatza Euskara Elkarteari, udaleku hauek aurrera eramaten laguntzeagatik.

Esan beharrean gaude, gainera, oso gustura sentitu gara elkarrekin begirale taldeko kideok. Inoiz baino partaide gehiago izan garen arren, talde-giro eta lankidetzeta ederra sortu da gure artean.

Gogotsu gaude urtean zehar lanean jarraitzeko, beraz, adi datozen ekintza berriei! Bitartean, udara zoriontsu-zoriontsua izan!

Kolorez Blai udalekuetako begiraleak





Mendata institutuak eta Zuhatza Euskara Elkartek elkarlanean antolatutako ipuin lehiaketan saritutako lanetako bat duzue hemen. Lehen zikloko lehen saria irabazi zuen ondorengo ipuinak. Irakurketa on!

BASERRITAR BERRIA

Udazkeneko egun bero bat da, hego haizea zakar dabil eta ni leihotik begira nago, igandero bezala, gurasoek erosi berria duten baserriko leihotik begira. Ehiztarien danbatekoek txorien kantua isiltzen dute eta nik udako oroitzapenetan galduta dut pentsamendua.

Tren hotsak esnatu nau, tren hotsak eta nire amaren ahots fin eta sarkorrak! Zereginak aipatu dizkit. Hori nahikoa ez eta han etorri ez zait ba aita, atzetik, bere proposamen zirrargarriekin? Gaurkoan, hesolak berrituko ditugu. Itzel!

Aita umore onez dabil, baserriarekin bere ametsa bete du. Ni, ordea, nire ametsaren bila nabil, oraindik...

Hasi da, bere erretolika:

-Eskertu beharko zenuke naturaz gozatzeko aukera izatea. Eskertu gure arbasoei erreleboa ematea, hainbeste zaindu zuten ingurua mantendu eta maitatzeko aukera izatea. Eskertu baserrian telebistatik ez izateagatik geratzen zaizun denbora libre...

Oraintxe ez dakit deskuidatuta elizan sartu naizen edo baserrian jarraitzen dudan!

Zorioneko mutila naiz, antza. Aitaren gorpuzkera daukat, handia naiz eta nire anai-arrebek inguruan jolasten duten bitartean nik "handien lanak" egin ditzaket: sasiak moztu, hesolak garraiatu... Gaur, hesola bat eskuan nuela trabatuta erori naiz, ezer larririk ez, kalekumeei gertatzen zaizkien gauzak, besterik ez, esan didatenez. Arrazoia eman diet. Baserriarrek ez omen dute minik hartzen, gogorrek dira. Nik hartu dut baina!

Aitak borra altxatu duenean beldurra sentitu dut. Nire zeregin bakarra hesola heltzea zela esan dit, erraza. Baserriarrek ez dira ikaritzen. Ni kalekumea naiz, baina begiak itxi ditut eta askatzeko tentazioari eutsi diot. Zailtzen ari naiz, nonbait!

Txikituta nago, hesolei begira. Traktorea husteko asko falta da! Bihotza lehertu beharrean ahotik zeruertzero botako dudala sentitzen



dut, kanoi baten indarrez. Baserriarrek gure lurraren arnas omen dira. Ni, herriro ere, kalekume sentitu naiz. Arnasa falta dut!

Baserriko bizimodua oso polita dela diote, baina sarritan gauzak ez dira ematen dutena. Beste aldea ere badu, kalekume jaio garenontzat, bederen!

Bat-batean, baserriko leihotik burua aterata, amak bazkaltzera deitu gaitu. Harrigarria da zein ahots politta duen!

*Mattin Agirrezabala
(1. zikloko lehen saria)*

Informatika
Tresneria
informatikoa

Elektronika
Osagal
elektronikoak

Informatika JLC Elektronika
Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURAK, ABOKATUA
Arakistain plaza, 2 behe - DEBA
Tel: 943 19 22 63
www.atarideba.com

UZTAILEKO
ZOZKETA
IRABAZLEA:
LAIA
ALTZIBAR

Zuhatza euskara elkarte

ASKETA, S.L.
ERAKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Enpresa Registrada Nº 2/05/049
NIVEL 2

ITURLAN, S.L.
Iturgintza-Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfnoa - Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com

- EUSKERAZ - BAGERA!

ZERGATIK ZARA ZUHATZA EUSKARA ELKARTEKO BAZKIDE?



BORJA LEKUBE

34 urte

Herriarentzat oso aberasgarria dela iruditzen zaidalako naiz Zuhatzako bazkide. Zuhatza bezalako elkarte bat herrian izatea guztiz ezinbestekoa da euskarak gure artean indar handiagoa har dezan.

Aldizkari hau bezalaxe, bertan lantzen diren ekintzak benetan interesgarriak dira denontzat, baina batez ere herriko umeentzat, beraiek baitira gure etorkizuna.

Beraz, mila esker bertan lan egiten duzuenoi. Berdin jarraitu!

GORA ZUHATZA eta GORA EUSKARA!

NERE AROSTEGI

43 urte

Zuhatzarekin daukadan harremana bereziki *Berriketan*-en bitartez izan da. Hasierako urteetan aldizkariaren erredakzio taldearen parte izan nintzen; oso oroitzapen politik dauzkat sasoi hartakoak, herritarrei egindako elkarrizketak, hileroko inkestak (piladun grabagailuaz grabatzen genituenak), Iñaki Iriondori egindako lehen elkarrizketa Debako lehen Euskal Jaiari buruz... Inertziaz egin nintzen bazkide, baina gaur egun kontziente naiz herriko gertaeren berri jasotzen duen aldizkaria eta kultur ekimenak eta euskara sustatzen dituen elkarte mantentzeko ezinbesteko dela bazkideon laguntza.



JAOUAD ABOURAKHA

35 urte

Jatorrizko hizkuntza eta kultura beste batzuk ditut eta orain dela denbora bat etorkin modura bizi naiz Euskal Herrian. Horregatik, niretzat gauzarik garrantzitsuenetako bat, zalantzarik gabe, bertako kulturaren eta bereziki euskararen munduan barneratzea da.

Beste etorkinentzat eredu izatea ere nahi nuke, beraiek ere euskara ikasi eta erabil dezaten. Horrela, gure herriko elkarteei eta aldizkariari lagundu diezaiokegu gainera.

Hizkuntza eta kultura denonak dira.

AMAIA ODRIOZOLA

37 urte

Alde batetik, Zuhatzari esker, herrian herrikoek herritarrentzat egindako *Berriketan* aldizkaria daukagulako eta altxor hau zaindu behar dugulako. Beste alde batetik, herrian euskara bizirik mantentzeko lan handia egiten dutelako. Bide batez, eskerrik asko!

Ez dudalako Olentzero gabeko gabonik, Euskal Jaia gabeko irailik, herriari buruzko berririk gabeko hilabeterik, Korrika gabeko Debarik... nahi. Beraiei esker euskararen inguruan antolatu diren hainbat ekintzatan bizi izan ditudan momentu alai eta politik nire semeak ere bizitzeko aukera izatea nahi dudalako. Behin hau guztia galduz gero, alperrik izango dira damuak eta aieneak. Beraz... kontziente izan eta egin zaitez bazkide!



ABUZTUAK 14, LARUNBATA

-18:30. **Pala txapelketa**, Aldats pilotalekuan.
-22:30. **Kontzertua**: Musika Banda, zumardiko karpan.

ABUZTUAK 15, IGANDEA

-10:00. **Zirku tailerra** Garazi Pascualekin, Itziarko frontoi zaharrean (943199255).
-12:00. **Zirku ikuskizuna**, Eli Barandiaran eta Garazi Pascualekin, Itziarren (943199255).
-**Artisau feria**, zumardiko kioskoan (11:00-15:00/17:00-20:30).
-**Haur parkea**, Simon Berasaluze plazan eta Plaza Zaharrean (11:00-13:00/16:00-19:00).
-22:30. **Kontzertua**, zumardiko karpan.

ABUZTUAK 16, ASTELEHENA

-22:30. **Kontzertua**, zumardiko karpan.

ABUZTUAK 19, OSTEGUNA

-20:00. **Udako kontzertua**, Josu Okiñena-Liana Gourga, Santa Maria elizan.

ABUZTUAK 20, OSTIRALA

-10:00/12:00. **Bisita gidatua** elizan, Itziarren.
-22:00. **Mariatxiak**: "Puro Relajo", zumardiko karpan.

ABUZTUAK 21, LARUNBATA

-10:00/12:00. **Bisita gidatua** elizan, Itziarren.

ABUZTUAK 26, OSTEGUNA

-20:00. **Udako kontzertua**, Sigma Project Quartet, Santa Maria elizan.

ABUZTUAK 27, OSTIRALA

-19:00. **Gurerara bertso eta kantu ikuskizuna**, Oskar Estangarekin, Itziarren (943199255).

IRAILAK 4, LARUNBATA

-9:00-13:30. **Merkatu txikia**, paseo estalian.
-20:00. **Kontzertua**: *Organo Flysch*, Aitor Olea Juaristi, Santa Maria elizan.

IRAILAK 11, LARUNBATA

-20:00. **Kale margo lehiaketa**, kaleetan zehar.

IRAILAK 25, LABUNBATA

-Euskal Jaia (laster iragarriko da egitaraua).

URRIAK 2, LARUNBATA

-9:00-13:30. **Merkatu txikia**, eta ezti lehiaketa, paseo estalian.
-20:00. **Kontzertua**: *Organo Flysch*, A. Garcia-S. Banda, Santa Maria elizan.

Elkartasun-tonbola

Abuztuaren 6tik, eta boletu guztiak saldu arte, Sagarna denda zegoen lokalean (Portu kalean) egongo da zabalik aurten ere Debako Caritas taldearen tonbola, 17:00etatik 19:00etara.

FederArte Festibala

-Irailaren 4an egingo da **FederArte** (surf, kultura eta musika). Egitarau oparoak osatuko du festibala; Stand Up Paddle txapelketa, surf inklusiboa, kontzertuak eta abar. Informazio gehiago 7. orrialdean.

XIV. Animadeba

-Animadeba Nazioarteko Animaziozko Zinemaldia izango da irailaren 8tik 12ra bitartean zumardiko karpan. Sail Nagusian nazioarteko 10 film labur lehiatuko dira; horrez gain, Panorama Saila eta haurrentzako tailer eta filmak ere izango dira.

Ordutegi berezia liburutegian

-Irailaren 6ra bitarte, Ostolaza liburutegiak udako ordutegia izango du. *Liburutegi orokorra: astelehenetik ostiralera (9:00-14:00); haur/gazte liburutegia (10:00-13:00).

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **abuztuak 23, 24, 25, 26.**
irailak 6, 7, 8, 9.

Burgoa Zuazo: **abuztuak 27, 28, 29.**
irailak 6, 9, 24, 25, 26.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: abuztuak 21 eta 28, irailak 18 eta 25

BURGOA ZUAZO: irailak 4 eta 11

9:30 - 13:00



Uzuri
optika audio

www.uzurioptika.com

**ZURE ENTZUMENA
ZAINTZEN**



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

RPS: 183/12



**JOXEAN GALDONA
AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba



Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31 | www.janiretamaltane.com

LIZ.-ZK.: 3 **TaxiAlain Deba** WiFi

www.taxideba.eus **636 135 008**
alain@taxideba.eus

ieraenea
"maite ditut nire/gure bazterrak"
Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Telf:943 53 95 20- E-mail: ieraenea@gmail.com

k
kutxabank

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa: 943 192 576
20820 DEBA

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokak...)

Email: andersalegi@gmail.com
Tlf: 685 703 843

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

A D

ASESORIA DEBA
Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com
Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

ADATS ILEAPAINDEGIAK MUTRIKU
Behoko plaza 1 MUTRIKU
T. 943 60 39 45

www.facebook.com/adatsileak
[@adatsileak](https://www.instagram.com/adatsileak)

AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95 

urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Nº. 379 **API**

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Apartado 3
20820 DEBA Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

sasoiko

ekodenda,
dieta, dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: tekarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresioak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoi@hotmail.com

GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

DOITASUNA MEKANIZAZIOAN; KONPROMISOA KOMUNITATEAN

Zehaztasun handiko mekanizazioan erreferente izateaz gain, Goimekek inguruarekiko konpromiso estua ere badauka. Besteak beste, ongizatea eta osasuna, garapenerako kooperazioa, gizarte-inklusioa, ingurumena, hezkuntza, kirola, euskara eta kultura ekimenak sustatzen ditu instalakuntzak dituen ingurune gertuan.

Goimek

Itziar Industrialdea, 2. Partzela - P.O. Box 5 - Deba (Gipuzkoa) - Spain

+34 943 60 63 15

www.goimek.com

DANOBATGROUP